



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO EKAINAREN 10EAN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Mertxe Aizpurua Arzallus.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jose Maria Rivadeneyra Sicilia.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin.

Ezinetorria adierazi dute: Jone Urdanpilleta Urdanpilletak eta Josu Portu Alzagak.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2014/05/27KO BILKURA.

2014ko maiatzaren 27ko bilkurako akta gehiengoz onartua izan da, Mertxe Aizpurua eta Alaitz Aizpuruaren aldeko bozkarekin eta Jose Maria Rivadeneyraren abstentzioarekin.

**2.- URBIL MERKATAL ZENTROKO JABEKIDEEN ORDEZKARITZAN DIHARDUEN
EVA MENDILUZE ANDREAK, URBIL MERKATAL ZENTROAN INSTALATU DUEN
2.000 LITROKO BILTEGIARI IREKIERA BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.05/2013-0296

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko martxoaren 11n egindako ohiko bilkuran, honakoa erabaki zuen: URBIL MERKATAL ZENTROKO JABEKIDEEN (H20707238) ordezkartzan diharduen EVA MENDILUZE andereak Urbil Merkatal Zentroan instalatu dituen 1.500 litroko bi biltegiei, IREKIERA baimena ematea.

AURREKARIAK

Alkatetzak 2013ko abenduaren 16an, 2013/1236 dekretuaren bidez, Urbil Merkatal Zentroko lurpeko gasolioko biltegi zaharra kendu eta 1.500 litroko bi biltegi instalatzeko udal baimena eman zion.

PROIEKTUAREN ALDAKETA

Interesatuak ordea, 2013ko azararen 28an Proiektuaren aldaketa aurkeztu zuen, 1.500 litroko bi biltegi jarri ordez 2.000 litroko biltegi bakar bat jartzea planteatu.

Eta halaxe jasotzen da hain zuzen, 2014ko otsailaren 10ean Iban Villanueva Ruiz ingeniari tekniko industrialak izenpetutako obra amaierako ziurtagirian.



Usurbilgo Udala



Udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak ere, 2.000 litroko biltegia instalatu dela jakinarazi digu eta 2014ko otsailaren 20an emandako txostena eman aurretik egindako bisitaldian hala ikuskatu zuela.

Guzti hau kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko martxoaren 11n emandako baimena zuzentzeko, honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: URBIL MERKATAL ZENTROKO JABEKIDEEN (H20707238) ordezkartzan diharduen EVA MENDILUZE andereak, Urbil Merkatal Zentroan instalatu duen 2.000 litroko biltegiari IREKIERA baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

3.- 2014KO KIROL EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Ikusirik

2014ko otsailaren 3an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kirol egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren, eskaerak aurkezteko hogen laneguneko epea emanaz. Epe horretan, guztira 15 diru-laguntza eskaera aurkeztu ziren.

Ondoren, 2014ko apirilaren 10eko bilkuran Diru-laguntzen Batzorde Orokorak, kirol teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

Apirilaren 23an egindako Kirol Batzordean, 2014ko kirol egitasmoak burutzeko diru-laguntzen proposamenaren berri eman zen.

Alegazio idatzirik jaso ez denez, erabakia behin betikotzat hartu da

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- 2014n kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2013/02/03).

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: 2014 kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza kopuru hauek onartzea behin betikoz.

Tximeleta	579,50
Andatza MT	3.733,07



Usurbilgo Udala

Baxurde Txiki	2.801,75
Buruntzazpi	2.339,31
Beterri Sub	580,07
Usurbil FT	6.595,28
Usurbil JC	7.964,74
Makax	1.423,37
Pagazpe	3.403,46
Saiatuz	1.128,08
Usurbil KE	12.605,37
Zubieta Lantzen Txirrindularitza	596,90
Zubieta PT	1.249,05
GUZTIRA	45,000.00

Bigarrena: Diru-laguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan ez da diru-laguntzarik emango.

Hirugarrena: Diru laguntzen lehen ordainketa egitea, %50a

Laugarrena: Gainerako %50a, eman deneko diru-laguntza justifikatu ondoren ordainduko da.

Diru-laguntza justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunak jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

a) Egindako jardueraren memoria (jarduera, ohikoa edo ez ohikoa izan, I edo II. Eranskinaren arabera), ahalik eta zehatzena. Bertan, diru-sarrerak eta gastuak erantsiko dira.

b) Gastuaren egiaztagiri originalak edo fotokopia konpultsatuak. Egiaztagiri hauek, ezinbestez, diru-laguntza eman zeneko helburu eta ekintzei dagozkien gastuei buruzkoak beharko dira izan. Ez dira onartuko beste helburu batzuetarako egindako gastuen egiaztagiriak. Justifikazioa egiterako orduan kontuan hartuko da diru-laguntza ematerako orduan oinarritzat hartu zen gastuaren aurrekontua eta benetako gastua. Proporzionaltasunaren araua aplikatuko da, beti ere emandako dirulaguntzaren mugaraino.

Fakturetan haxe agertuko da:

- Erakundearen edo/eta elkartearen identifikazioa.
- Hornitzailearen identifikazioa.
- Fakturaren data.
- Jarduera.
- Zerbitzuaren deskripzioa.

Dirulaguntzaren bidez egiten den jarduera antolatzeagatik ez da diru-saririk jasoko.

Onuradunei ondorengoa gogoraztea: gainerako %50a, eskaera egiteko aurkeztu zen aurrekontu osoari dagokion gastua, eta ez diru-laguntzaz ordaindutakoa bakarrik, justifikatu ondoren ordainduko dela

Diru-laguntza zuritzeko azken eguna 2015ko urtarrilaren 15a izango da.



Usurbilgo Udala



Aurreikusitako gastua baino txikiagoa egiten bada, dirua itzuli egin beharko da.

Bosgarrena: Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.43.00.481.452.10.01 2014 02326

Seigarrena: Udalak diruz laguntzen dituen ekintzak usurbildar guztiei irekiak izango dira, herritarren artean inolako bereizketarik egin gabe.

Zazpigarrena: Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuz bideratuko dira ekintza guztiak.

Zortzigarrena: Hondakinei dagokienez, Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta Udalak zehaztutako protokoloak jasotakoak beteko dira.

Bederatzigarrena: 3.000 euro baino gehiagoko diru-laguntza denean, ebazpena Udaletxeko iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hamargarrena: Intereresatuari akordioaren berri ematea.

Hamaikagarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri ematea, ordainketa egiteko orria erantsiz.

4.- 2014KO KULTUR EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Esp. zenb.: KE.01/2014-0017

Ikusirik

2014eko otsailaren 3an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren, eskaerak aurkezteko hogeitun laneguneko epea emanaz. Epe horretan, guztira 23 diru-laguntza eskaera aurkeztu ziren.

Ondoren, 2014ko apirilaren 10eko bilkuran Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak, Kultura, euskara eta gazteria teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaizen alegazioak aurkezteko.

Epe horretan bi alegazio aurkeztu dira. Kultura teknikariak bi alegazio hauen inguruko txostena egin du.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituenak.
- Diru laguntzak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa (GAO, 2008/07/01).
- 2014n kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2014/02/03).
- Kontuhartzailearen ziurtagiria



Usurbilgo Udala

- Alegazioei erantzuteko Kultura Teknikariaren txostenak

Guzti hau kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Usurbilgo Dantza Eguneko antolatzaileek aurkeztutako alegazioari erantzunez, 1800 euroko diru-laguntza izendatu beharrean, 2700 euroko diru-laguntza izendatzea. Hauek dira erabaki honen arrazoiak:

- Alegazioa alegazio-epearen barruan egina dago.
- Apirilaren 12an egin zen Dantza Egunerako diru-laguntza hau eskatu zen:
 - o Kanpotik datozen dantzarietzako bazkaria: 1000 €
 - o Arratsaldeko dantzarietzako luntxa: 300 €
 - o Gaueko dantzarietzako luntxa: 300 €
 - o Soinu ekipoa: 1400 €

GUZTIRA: 3000 €

- Diru-laguntza izendatzerakoan, Usurbilgo Udalak jakin zuen kanpotik ez zetorrela dantzaririk, eta, honen ondorioz pentsatu zuen, 1000 €ko gasturik ez zela izango. Horren arabera egin zuen diru-izendapena.
- Antolatzaileek 1000 €ko diru-gastua beste kontzeptu batean erabili dute, arropak erosteko.
- Ekintza antolatzeko unean udalari ez zitzaion horren berri eman.
- Nolanahi ere, Dantza Eguna dimentsio handiko ekitaldia da eta ekitaldi bezala, berri samarra. Honenbestez, neurri batean ulertzekoak dira gertatutako aldaketak.
- Diru-aldetik, 900 euro gehiago izendatzeko dirua badago udal diru-laguntzetako partidan.

Bigarrena: Usurbilgo Dantza Taldeari aurrez izendatutako diru-laguntzan aldaketarik ez egitea, eta honenbestez, 1140 euroko diru-laguntza mantentzea. Hauek dira erabaki honen arrazoiak:

- Alegazioa alegazio-epearen barruan egina dago.
- Ikastaro honen eskaera fitxan adierazten da 6000 euroko gastua duela. 6000 euroko gastu horretan adierazten da gastu hauek sartzen direla: dantzako materiala, kurtso bukaerako irteerako gastuak, musikariaren diru-saria, trajeen atonketa, haurrentzako emanaldien ondorengo saria. Baina ez da zehazten kontzeptu bakoitzak izango duen gastua.
- Diru-sarreretan 3600 euro aurreikusten dira. Honenbestez, udalari 2400 euro eskatzen zaizkio.
- 2013an ekintza honi 660 euro izendatu zitzaizkion eta gastu gisa 1100 euro onartu ziren. 2014ko eskaeran ikusi da, batetik, kontzeptuak ez direla behar bezala zehaztu diru-laguntza eskaeran, eta, bestetik, urte batetik besterako eskaeraren arteko aldea oso handia dela. Honenbestez, kontuan izanda ikasle kopurua handitu egin dela, gastutzat 1900 euro onartu dira.
- Bestalde, egia da diru-laguntza eskaeran bertan adierazten dela dantza taldeak ekintza honen barruan beste ekintza hauek ere egiten dituela adierazten duela:



Usurbilgo Udala

- Urtean zehar herriko haur eta gazteei euskal dantzak irakatsi
- Urtean zehar helduei erromeria giroko dantzak irakatsi.
- Auzo eta herriko jaietan dantza emanaldiak eskaini
- Beste herri batzuetako dantza emanaldietara irteera antolatu

Baina, aurreko urteetan ere, ekintza horiek bideratzen ziren eta ekintza hau osorik hartuta, “ikastaro” bezala hartzen zen beti.

- Ekintza honen pisurik handiena “ikastaroa” izatean dagoela ikusten da, eta honenbestez aproposa ikusten da ikastaroei dagozkien diru-kopuruak izendatzea.

Hirugarrena: 2014an Kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza kopuru hauek behin betiko onartzea.

Taldea	Diru-laguntza
Usurbilgo Euskal Kantu Taldea (Zb.43)	3.000,00 €
Antxomolantxa (Zb.53)	2.700,00 €
Einean (Zb.54)	1.860,00 €
Usurbilgo Dantza Taldea (Zb.55)	1.170,00 €
Zubietako Eskolako Guraso Elkarte (Zb.56)	2.730,00 €
Usurbilgo Dantza Egunaren Antolakuntza taldea (Zb.57)	2.700,00 €
Organoaren Lagunak (Zb.58)	2.259,00 €
Jexux Artze Kultur Elkarte (Zb.59)	5.139,00 €
Hitz Aho Udarregi ikastolako gurako Elkarte (Zb.60)	3.346,50 €
Ziortza Gazte Elkarte (Zb.61)	10.230,00 €
Bihurri Txiki Ludoteka (Zb.62)	711,00 €
San Praixku Guraso Elkarte (Zb.63)	6.600,00 €
Bidean Agiñarron Herri Elkarte (zb.64)	4.566,60 €
Noaua! Kultur Elkarte (Zb.65)	10.866,74 €
Irriu Abesbatza (zb.67)	477,00 €
Gure Esku Dago Usurbil (Zb.69)	855,00 €
Santuenea Kultur Elkarte (Zb.70)	6.597,00 €
Akerra Gaztetxea (Zb.71)	1.690,00 €
Aitzaga Elkarte (Zb.72)	1.710,00 €
EHAZE - Antzerki Ekintza (Zb.73)	7.433,70 €
Nafartarrak Kultur Taldea (zb. 74)	3.000,00 €
GUZTIRA	79.641,54 €

Laugarrena: Ekintza bakoitzari honako diru-laguntza ematea:

IKASTAROAK:

Taldea		Ekintza	Diru laguntza
Usurbilgo Euskal Kantu Taldea (Zb.43)	1	Kantu Ikastaroa	640,78 €
Einean (Zb.54)	6	Sukaldaritza	60,00 €
	7	Biodantza	60,00 €
	8	Sabel Dantza eta Hip-Hop	60,00 €
	9	Idazketa kreatiboa	60,00 €



Usurbilgo Udala

	10	Eskulanak	720,00 €
	11	Pintura	720,00 €
	12	Masajea	60,00 €
	13	Yoga	60,00 €
	14	Laboreak	60,00 €
Usurbilgo Dantza Taldea (Zb.55)	15	Euskal Dantzen ikastaroa eta emanaldiak	1.140,00 €
Hitz Aho udarregi ikastolako gurako Elkarte (Zb.60)	28	Guraso tailerren jarraipena	1.230,00 €
	31	Guraso-eskola tailerrak	1.005,00 €
Sn Praixku Guraso Elkarte	44	Umeentzako ikastaroa	180,00 €
Santuenea Kultur Elkarte (Zb.70)	66	Pintura eta Plastika tailerrak	3.117,00 €
	71	Gaztetxoentzat makillaje tailerra	111,00 €
	72	Yoga tailerra	
	73	Sukaldaritza ikastaroa	210,00 €
Akerra Gaztetxea (Zb.71)	78	Tailerra	60,00 €
EHAZE - Antzerki Ekintza (Zb.73)	86	6. Topa Eszenika:Tailerra, mahaingurua	240,00 €
GUZTIRA			9793,78 €

IRTEERAK:

Taldea		Ekintza	Diru laguntza
Usurbilgo Dantza taldea (zb.55)	17	Maskarada ikustera Iparraldera irteera	30,00 €
Akerra Gaztetxea (zb.77)	86	Mendi irteera	10,00 €
GU ZTIRA			40 €

KANPAMENDU/UDAKO EKINTZAK:

Taldea		Ekintza	Diru laguntza
Zubietako Eskolako Guraso Elkarte (Zb.56)	18	Udako Txokoak	1.380,00 €
San Praixku Guraso Elkarte (Zb.63)	40	Txokoak	2.100,00 €
Ziortza Gazte Elkarte (Zb.61)	34	Kanpaldia	6000,00 €
GUZTIRA			9480 €

BESTELAKO EKINTZAK:

Taldea		Ekintza	Diru laguntza
Usurbilgo Euskal Kantu Taldea (Zb.43)	2	Kantu Afaria	1572,82 €
	3	Kantu ekimenak	786,41 €
Antxomolantxa (Zb.53)	4	Kultura Ekintzak	2.025,00 €
	5	Ludoteka	675,00 €
Zubietako Eskolako Guraso Elkarte (Zb.56)	19	Aste Kulturala	900,00 €
	20	Hitzaldiak	450,00 €
Usurbilgo Dantza Egunaren	21	Dantza Eguna	2.700,00 €



Usurbilgo Udala

Antolakuntza taldea (Zb.57)			
Organoaren Lagunak (Zb.58)	22	Donostia Musika Hamabostaldia organo kontzertua	1.710,00 €
	23	Donostia Musika Hamabostaldia organo-jole bilkura	207,00 €
	24	Organo kontzertua	342,00 €
Jexux Artze Kultur Elkartea (Zb.59)	25	Joxean Artzeren inguruko ikuskaria	2.502,00 €
	26	Asier ETA biok pelikula	171,00 €
	27	Hiru Antzezla	2.466,00 €
Hitz Aho udarregi ikastolako gurako Elkartea (Zb.60)	29	Haur eskolako gurasoen hitzaldia	
	30	Ikastolako aste kulturala	976,50 €
	32	Jostailuen truke merkatua	135,00 €
Ziortza Gazte Elkartea (Zb.61)	33	Urteko saioak	2.160,00 €
	35	Kabalgata 2015	2.070,00 €
Bihurri Txiki Ludoteka (Zb.62)	36	Berrirekitze Merendola	63,00 €
	37	Ekitaldia	450,00 €
	38	Gabonetako Merendola	63,00 €
	39	Jostailuak eta materiala	135,00 €
San Praixku Guraso Elkartea (Zb.63)	41	Euskararen eguna	1.080,00 €
	42	Hitzaldiak	450,00 €
	43	Santo Tomas eguna	90,00 €
	45	Eskola Txikien eguna	2.700,00 €
Bidean Agiñarron Herri Elkartea (zb.64)	46	Erregeen kabalgata	738,00 €
	47	Gau Beltza	2.358,00 €
	48	Monologoak (Potologoak)	1.470,60 €
Noaua! Kultur Elkartea (Zb.65)	49	Joseba Tapiaren kontzertua	883,80 €
	50	Herriko ondarea ezagutzeko ibilbidea	
	51	Inauteriak 2014	1.307,16 €
	52	Euskarazko Labur bira	515,59 €
	53	Sagastiak loretan ospakizuna	1.488,60 €
	54	Plis Plas Talo ta Jolas (kaxkoan)	724,65 €
	55	Antzerkia	1.130,40 €
	56	Kulturaldia	4.272,93 €
	57	Pelikula, antzerkia edo hitzaldi emanaldi bat	543,60 €
Irriu Abesbatza (zb.67)	58	Parrokia zerbizua + Santa Zezili eguna	477,00 €
Gure Esku Dago Usurbil (Zb.69)	59	Baietz 400! aurkezpena	90,00 €
	60	Gure esku dago Eguna	360,00 €
	61	Lib dup	180,00 €
	62	Lasarterekin elkarlanean martxa	45,00 €
	63	Kontzertua	180,00 €
	64	Gazta zati bat ...	
Santuenea Kultur Elkartea (Zb.70)	65	Danborrada	72,00 €
	67	Argazki lehiaketa	225,00 €
	68	Uretako jolasak kurtso bukaerako bazkaria	135,00 €
	69	Pailazoak	891,00 €
	70	Kantu Afaria	405,00 €
	74	Gabonak	1.431,00 €
Akerra Gaztetxea (Zb.71)	75	Pala txapelketa	
	76	Kontzertua	1.620,00 €
Aitzaga Elkartea (Zb.72)	79	Preso eta lheslarien ekarpena konponbidean	180,00 €
	80	Liburu aurkezpena	90,00 €



Usurbilgo Udala

	81	Argazki erakusketa	540,00 €
	82	Hitzaldia: Herrialde katalanak eta Euskal Herria	360,00 €
	83	Hitzaldia: Abertzaleen batasuna	270,00 €
	84	Hitzaldia: Estatu Krimena	270,00 €
EHAZE - Antzerki Ekintza (Zb.73)	85	6. Topa Eszenika: Lau aukera	3.125,70 €
	87	6. Topa Eszenika: Amets zirkoa salgai	918,90 €
	88	6. Topa Eszenika: Carbon club (Santuenean)	3.149,10 €
Nafartarrak Kultur Taldea (zb. 74)	89	Hitzaldia: Katalunian bizi duten egoera	318,44 €
	90	Kantaldia: Iparraldeko kantariak	712,29 €
	91	Antzerkia	460,89 €
	92	Kantaldia: Sohütako ikastolaren alde	586,59 €
	93	Hitzaldia: Iparraldeko eta hegoaldeko gazteen artean	251,40 €
	94	Hitzaldi sorta	670,39 €
GUZTIRA			60327,76

Bostgarrena: Udalak diruz laguntzen dituen ekintzak usurbildar guztiei irekiak izango dira, herritarren artean inolako bereizketarik egin gabe.

Seigarrena: Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuz bideratuko dira ekintza guztiak.

Zazpigarrena: Hondakinei dagokienez, Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak jasotakoak beteko dira.

Zortzigarrena: Deialdi honetan diru-laguntza jasotzen duten ekintzak ezin dira auzoetako egitarauen barruan kokatu

Bederatzigarrena: Diru-laguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da diru-laguntzarik emango.

Hamargarrena: Jasotako diru-laguntza zuritzeko azken eguna 2015ko urtarrilaren 15a izango da.

Hamaikagarrena: Kultura Alorreko diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4000.481.451.10.03.2014 (A6/2014)

Hamabigarrena 3.000 euro baino gehiagoko diru-laguntza denean, ebazpena Udaletxeko iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hamahirugarrena: Interesatu bakoitzari jakinarazpen indibidualizatua egitea.

Hamalagarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri ematea, ordainketa egiteko orria erantsiz.

5.- 2014KO NEKAZARITZA ETA INGURUMEN EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.



Usurbilgo Udala

Esp. Zenbakia: HZ.06/2014-0010

Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko urtarrilaren 28ko bilkuran, besteren artean 2014an nekazaritza eta ingurumen arloko egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak onartzea erabaki zuen.

Oinarrien testu osoa, 2013ko otsailaren 3an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 21. zenbakian, diru-laguntzak aurkezteko epealdia zabalduz. Bertan, hogeitau laneguneko epea ematen zaie interesatuei diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten. Eskaera aurkezteko epea 2014ko otsailaren 26n bukatu zen.

Bost eskaera aurkeztu dira:

- Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntza eskaera: 2014-02-21/515
- Alkartasuna, elkartearen laguntza eskaera: 2014-02-25/570
- Alkartasuna, elkartearen laguntza eskaera: 2014-02-25/571
- Azti teknalia taldearen laguntza eskaera: 2014-02-26/615
- Gipuzkoa Zero Zabor taldearen laguntza eskaera: 2014-02-26/616

Oinarrietako 6. artikuluan zehaztutakoaren arabera Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak, eskaerak aztertu ostean, dagokion txostena egin du.

Oinarrietako 6. artikuluan zehaztutakoaren arabera, Diru-laguntzen Batzorde Orokorrek egindako proposamena interesatuei jakinarazi eta 10 eguneko epea eman zaie nahi izanez gero alegazioak aurkezteko. Inork ez du inolako alegazio edo erreklamaziorik aurkeztu.

Guzti hau kontutan izanik, Diru-laguntzen Batzorde Orokorrek egindako proposamena ezaguturik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: 2014an nekazaritza eta ingurumen arloko egitasmoak burutzeko ondoko diru-laguntzak ukatzea, jarraian azaltzen diren arrazoiengatik:

Taldea	Ekintza	Baztertze Arrazoa
Alkartasuna. Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba Elkartea	Aitzondoko baserriaren erabilpen potentzialaren azterketan	<ol style="list-style-type: none">1. Dirulaguntzaren aurrekontuaren bikoitza baino gehiago suposatzen duela.2. Finantza daitekeen kopuru urria kontutan hartuta eta eskaerak beste finantza biderik ez duela jakinda, azterketa ez dela bideragarria izango aurreikusten dela.

BIGARRENA: 2014an nekazaritza eta ingurumen arloko egitasmoak burutzeko ondoko diru-laguntzak onartzea:



Usurbilgo Udala

Taldea	Ekintza	Babestutako aurrekontua	Diru-laguntza	
Aranzadi Zientzia Elkartea	Biodibertsitatea lurraren arrasean: anfibio eta narrastiak, Usurbilgo aberastasun natural ezezaguna. Hitzaldiak	700,00 €	305,96 €	
	Biodibertsitatea lurraren arrasean: anfibio eta narrastiak, Usurbilgo aberastasun natural ezezaguna. Erakusketa	800,00 €		
Azti fundazioa	Biodibertsitatea lurraren arrasean: anfibio eta narrastiak, Usurbilgo aberastasun natural ezezaguna. Erakusketa	417,00 €	305,96 €	
	World fish migration day ekintza internazionalaren barruan Orbeldiko arrainen pasabidera bisita eta umeentzako tailerrak	555,00 €		
Alkartasuna. Baserriarren Elkartea	Usurbilgo Kooperatiba	Sagardoa eta sagar zukuaren ekoizpenari buruzko ikastaroa	563,60 €	338,16 €
		Plastikozko poltsak berrerabiliko diren ontziengatik ordezkatzeko proiektuaren azterketa eta abian jartzea	313,60 €	313,60 €
		Sagastien kimaketa eta zainketari buruzko ikastaroa	1013,60 €	608,16 €
		Nekazaritza biodinamikoa. ikastaroa	713,60 €	428,16 €
Gipuzkoa Zero Zabor	Aro berria. Hondakinen gaian azken urteotan izandako gertakarien inguruko bideoa	1.400,00 €	700,00 €	
GUZTIRA		6,476,40 €	3.000,00 €	

HIRUGARRENA: Oinarrietako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, onartutako diru-laguntzen % 75a ordaintzeko agintzea Kontuhartzaitzari, 1.6100.480.442.10.01.2014 aurrekontu-partidatik:

Taldea	Ekintza	Diru-laguntzaren %75a
Aranzadi Zientzia Elkartea	Biodibertsitatea lurraren arrasean: anfibio eta narrastiak, Usurbilgo aberastasun natural ezezaguna. Hitzaldiak	229,47 €
	Biodibertsitatea lurraren arrasean: anfibio eta narrastiak, Usurbilgo aberastasun natural ezezaguna. Erakusketa	



Usurbilgo Udala

Azti fundazioa	Biodibertsitatea lurraren arrasean: anfibio eta narrastiak, Usurbilgo aberastasun natural ezezaguna. Erakusketa	229,47 €
	World fish migration day ekintza internazionalaren barruan Orbeldiko arrainen pasabidera bisita eta umeentzako tailerrak	
Alkartasuna. Baserriarren Elkarte	Sagardoa eta sagar zukuaren ekoizpenari buruzko ikastaroa	253,62 €
	Plastikozko poltsak berrerabiliko diren ontziengatik ordezkatzeko proiektuaren azterketa eta abian jartzea	235,20 €
	Sagastien kimaketa eta zainketari buruzko ikastaroa	456,12 €
Gipuzkoa Zero Zabor	Nekazaritza biodinamikoa. ikastaroa	321,12 €
	Aro berria. Hondakinen gain azken urteotan izandako gertakarien inguruko bideoa	525,00 €
GUZTIRA		2.250,00 €

Onuradunei ondokoa gogoraraztea: gainerako %25a, eskaera egiteko aurkeztu zen aurrekontu osoari dagokion gastua, eta ez diru-laguntzaz ordaindutakoari bakarrik, justifikatu ondoren ordainduko dela. Eta kontuan izango dira, halaber, oinarrietako 12. artikuluan aipatzen diren aspektu guztiak.

LAUGARRENA: Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuz bideratuko dira ekintza guztiak.

BOSGARRENA: Hondakinei dagokienez, Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak jasotakoak beteko dira.

SEIGARRENA: Diru-laguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da diru-laguntzarik emango.

ZAZPIGARRENA: Jasotako diru-laguntza zuritzeko azken eguna 2015ko urtarrilaren 10a izango da.

ZORTZIGARRENA: Oinarrietako 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunek ondoko beteharrak bete beharko dituzte:

1. Diru-laguntza emateko eskatzen den jarduera egitea edo eskatutako jokabide hori izatea.
2. Jarduera egin dela frogatzea. Orobat, laguntza emateko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea.



Usurbilgo Udala



3. Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.
4. Diru-laguntza eskaini duen Usurbilgo Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea, ez eta esku-hartzaitzari dagozkion finantza-kontrolako jarduketei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere.
5. Beste administrazio edo erakunde batzuetatik –publiko nahiz pribatuetatik, estatuko nahiz nazioartekoetatik– helburu berbererako beste diru-laguntzarik jasotzen bada, diru-laguntza eskaini duen organoari horren berri ematea.
6. Diru-laguntza eskaintzeko garaian kontuan hartutako atalen batean aldaketarik gertatuz gero –objektiboa nahiz subjektiboa izan–, diru-laguntza eskaini duen organoari aldaketa horren berri ematea eta beronen onespena jasotzea.
7. Indarrean dauden xedapenen arabera Gizarte Segurantzaren eta Ogasun Publikoaren aurrean dituzten betebeharrak ezagutzea –Usurbilgo Udalak ezarritakoak barne.

Horretarako, eskatzaileek idatzizko aitopenean adieraziko dute Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunera dagoela edo Ogasun Arloko betebeharrak betetzen dituela.

8. Diruz lagundutako jarduerari buruz, pertsona onuradunak euskara behintzat erabili beharko du ekintzan bertan eta argitaratutako iragarki, ohar, jakinarazpen eta abarretan. Era berean diruz lagundutako jarduerak aintzakotzat hartuko ditu Euskararen Udal Ordenantza, Usurbilgo Udalaren Euskararen Erabilera Plana, UEMAREN hizkuntza irizpideak, gainerako araudia eta Usurbilgo herriaren errealitate soziolinguistikoa.

Diru-laguntza gai den ekintzako hizlaria euskalduna ez balitz, behintzat laguntzaile euskalduna izan beharko du, euskaldunen hizkuntza eskubideak ere errespetatu daitezkeen.

Gainera, diruz lagundutako jardueran diharduela egiaztatzerakoan, hizkuntza-betebehar hori betetzen duela frogatu beharko du onuradunak.

9. Diruz lagundutako jardueretan eta jardueren iragarpenean hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar da, Pertsonen irudiak erabiltzekotan, emakumeen eta gizonen presentzia modu orekatuan eta ez estereotipatuan islatu behar da, 4/2005 Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legeak agintzen duen modura.
10. Ekintzei lotutako publizitatean Usurbilgo Udalaren babesletza adierazi beharko da, udalaren logoa erantsiz.



Usurbilgo Udala



11. Diru-laguntza gai diren ekintzak bideratzerakoan, hondakinei dagokienez Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak beteko dira.

BEDERATZIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei eta Kontuhartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 08:45ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.